



# martxoak 8

## badogu zer egin!

**NBEak 1975ean aldarrikatu eban martxoaren 8a Emakume Langilearen Nazinoarteko Eguna. Sindikalista senaz sortu zan, gizartean euren eskubideak eta bardintasuna eskatzen ebezan emakume langileen burruken oroitzapena eginez. Gaur egun, urteurren honek eboluzio-natu egin dau, "langile" berbea ez da agertzen eta emakume guztiak eta eskubideen erabateko bardintasuna aldarrikatzen ditu. Izan be, oraindik emakumea zapaltzen dauan eta lan, ekonomia, politika eta familia arloetan desbardintasuna nabarmena dan gizartean bizi gara.**

### Politikan...

2016ko ekainean, Nazino Batuen datuen arabera, herrialdeetako parlamentarioen %22,8a baino ez ziran emakumeak.

### Lanaren eremuan...

Emakumeek, ordu bakotzeko, gizonezkoek baino %20 gitxiago kobratzen dabe batez beste. Enpresa handietako kontseilarien %17a baino ez dira emakumeak, Europako batezbestekotik urrun dagoan portzentajea. Enpresa-ordezkaritzan, maila goreneko hamar exekutibotik bakarra da emakumezkoa eta %3a baino ez dira kontseilari ordezkarri.

### Kulturan...

Espainiako museoetako eta arte garaikideko zentroetako bildumetan, emakumeek (espainiarrek eta atzerriarrek) ekoiztutako lanak ez dira %20ra ere iristen. Zehatz-mehatz, Guggenheim museoan, artelanen %13,7koa da eta %2koa Thyssen museoan. Artista espainiarrek egindako artelanak bakarrik zenbatu ezker, museoek jadetsitako piezak %10,5 baino ez dira.

### Unibersidadean...

Unibersidadeetako irakasleen %40a dira emakumezkoak, ikasleen artean gizonezkoen eta emakumezkoen arteko proportzioa guztiz orekatuta badago be. Hurrengo mailan, katedrei dagokienean, desbardintasuna handiagoa da, emakume bakotzeko lau gizon dagozako. Zuzendaritzan, portzentajea urria da: emakume bakar batek zuzentzen dau 50 unibersidade publikoetako bat (%2), zortzik unibersidade pribatuak be zenbatu ezker.


### Publizidadean...

Iragarpen publizitarioen %23,9tan iragarten dan produktuak kontsumitzaleari eskaintzen deutsan saria asetze sexuala da. Iragarkien %40an, emakumea aurkezten da objektu sexual lez.

Gainera, umeei zuzendutako iragarkien %77ak, indarkeriari, kontrol bako kontsumoari edo portaera sexistei logutako eduki desegokiak transmititzen dabez.

### Etxeetan...

Emakumeek, batez beste, gizonek baino 2,5 ordu gehiago ematen dabez etxeetako lanak egiten (umeak zaintzea barru) eta gizonek egunean ordubate eskaintzen deutse aisi-aldiari.



## Baina gainera, egunak joan, egunak etorri...

Genero-indarkeria, emakumezkoen askatasuna eta duintasuna bortxatzen, mugatzen edo murrizten dauan jardueraren oro bada, eguneroko bizitzan gizonen aldetik gertatzen diran indarkeriazko eta menpekotasunezko hainbat jardueraren aurrean ez ikusiarena egiten dogula ikusi daiteke, batzuk normaltzat hartzen diralako, beste hainbat ikusiezin bihurtu eta beste batzuk bidezkoztat hartu eta, ondorioz, ezelango zigorrik jaso barik gauzatzen diralako. Emakumeen gaineko nagusitasuna sendotu gura daben gizonetzkoen jokaerak dira. "Tirania txikiak dira, terrorismo intimoa, indarkeria biguna", "leuna" edo intentsidade baxukoa, menderatzeko amarruak, matxismo ikusezina edo kapilar lez ulertutako "mikro" partikula, ia hautemanezina, ebidentziaren mugetan dagoana. Luis Bonino terapeuta argentinarrak "mikromatxismoak" izena jarri eutsen 1990ean.

Adibide batzuk:

- Andereñoa eta anderea bereizi.
- Emakumezkoak pasatzen izteari erabat uko egin.
- Isiltasunagaz menderatu eta, holan, zerbaiti buruz noiz eta zelan hitz egingo dan erabagi. Aldi berean, "histerikoa zara" edo "gauzak puzten ari zara" esaten da, emakumea arrazoitzeko gauza ez dan sentimental eta oldartsua dala adierazoten dauan topikoari dagokion pastelaren ginda.
- Emakumea musu bi emonez agurtu, baina gizonari eskua emon.
- *Manspreading*: Gizonetzkoak behar dauan lekua baino gehiago hartu daike eta, bitartean, emakumeak ahalik eta leku gitxien hartzen saiatu behar dau, baimena eskatu beharko baleu lez. Gorputzaren adierazpena eremu publikoari buruz, gizonak eta emakumeak ustez merezi daben eremuari buruz. Ikusi jarrerak metroan edo autobusean.
- *Mansplaining*: Batez be emakumeari edozer azaltzen edo edozer gauzari buruz eretxia emoten deusnan gizona. Sarritan aurrekoari gustua egiteko hitz egiten dau, nahiz eta zertaz ari dan ez jakin eta bere kontua ez izan.
- "Bai jantzi dotorea". Ezkontzetan, graduazinoetan, sari-banaketetan... emakumeen jatzien inguruko komentarioak egiten dira bakarrik eta kritika gogorak egiten jakez 'araututakotik' ataraten diranei. Jakina, gizonak eroso joango dira eta emakumeak erroa estu eta takoiakaz.
- Emakumeari izenez deitu eta ez abizenez. Rajoi, Sanchez, Iglesias, Rivera, Susana eta Sorayaren parrean. Izenburu gitxitan agertuko da "Mariano" bakarrik.
- Emakumeek gitxiago ordaintzen dabe diskoteketan. Ez da diskriminazio positiboa, emakumeak ganadutzat hartzea baino; emakumeak dira produktua.
- "Gaur neskame-haurtzain itzi zaitue". Ez da neskame-haurtzaina, aita da, dagokion erantzukizunagaitik, eta ez gaur bere emaztea okupatuta egoteagaitik, umezain geratu dana.
- Emakume bat ez dala depilatu esan.
- Gonadun uniformeak emakumeentzat eta prakadunak gizonentzat.
- "Superman besteko indartsua". Mutiko eta neskatoen trebetasunak goraiatzat diranean, eredu maskulinoak erabilteko joera dago. Ez ete dago emakume sendo edo azkarrik?
- "Nenaza". Zerbait emakume batek lez egitea iraina da?
- Piropoak esan: piropoa gauza atsegina da eta ezaguna den norbaiti esaten jako errespetuz eta dalako horri adore emoteko, beragaz gozo izateko, berari afektua erakusteko. Kalean emakume ezezagun bati bere itxura, gorputza, arropak dirala-eta txistuka aritzea edo oihu egitea hitzezko jazarpena da.
- WhatsAppen bidez edo beste bide batzuetatik zabalduta, emakumearen duintasunaren aurkako eraso diran balizko txisteez estereotipo kaltegarri erantzuten deutse, gizartaren zati bat iraindu egiten dabe eta gizonaren eta emakumearen arteko bardintasuna autorzerakoan dagoan aldea areagotu egiten dabe.

## Besoak uztarturik ez gelditu!

- Parte hartu gizonen eta emakumeen arteko bardintasunaren aldeko martxoaren 8ko ekitaldietan.
- Aztertu "mikromatxismotzat" jotako jarrerak eta identifikatu zeure eguneroko bizitzan. Horreek antzematen lagunduko deusnen "betaurreko moreak" ipini.
- Zuzendu bildur barik zure ingurukoengan antzematen dozuzan jarrera matxistak.

## Eta hausnartzen jarraitzeko:

#Amitambién kanpainako bideoa; gizartean gailendu diran emakumeek jasandako diskriminazioaren inguruko esperientziak kontatzen dabez:

<https://www.youtube.com/watch?v=MB-ySGEYF10>

